

"HEZKUNTZA ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA: Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erauztea Bizkaiko lurraldean" PROGRAMAN AURREIKUSITAKO JARRAIPEN BATZORDEAREN TXOSTENA

2014-2015 IKASTURTEA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

(Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza)

FORU ALDUNDIA

(Gizarte Ekintza Saila)

EUDEL

AURKIBIDEA

	Orrialdea
1. HITZAURREA	3
2. PROGRAMAREN HELBURUAK	4
3. DATUEN BILKETA	5
3.1 Terminoen definizio operatiboa: eskola-absentismoa eta eskolagabetzea	5
3.2 Datu-bilketarako ezarritako prozedura	6
4. ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAN	6
4.1 Oinarrizko Hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta DBH)	6
4.2 Haur Hezkuntza	14
4.3 Eskola-absentismoaren banaketa ikuskapen-eremuaren arabera	14
4.4 Kaltetutako ikastetxeak	15
5. ESKOLA-ABSENTISMOA HEZKUNTZA-IKERKETAREN ARGITAN	16
6. BILBOKO UDALAREN ESPERIENTZIA	21
7. ONDORIOAK-SINTESIA	25
8. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	29
9. ESKERRAK	31
10. ERANSKINAK	
10.1 – I. eranskina: Datuen bilakaera	33
10.2 – II. eranskina: Bibliografia	36

1 HITZAURREA

"Hezkuntza eskubidea bermatzeko Programa: eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erauztea Bizkaiko lurraldean" izeneko programan aurreikusitako jarraipen batzordeak programan inplikaturako hiru instituzioen esku-hartzeari buruzko txostenak egin zituen aurreko hamaika ikasturteetan. Hezkuntza Saila (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza), Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila) eta EUDEL (Euskal Udalen Elkarte) dira hiru instituzio horiek. Txosten horien bitartez jakin ahal izan da absentismoaren eta eskolagabetzearen dimentsioa Bizkaiko Lurraldeko Oinarrizko Hezkuntzako ikasleei (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) dagokienez, baita Haur Hezkuntzako etapako bigarren zikloari (3-6 urte) dagokionez ere. Bestalde, parte hartzen duten pertsonen iritzia ere jaso da, faktore hori gakoa baita hobetzeko proposamenik egokienak ezartzeko xedez.

Jarraian aurkezten den txostenak, hamabigarren urteari dagokiona Programa ezarri zenez geroztik, absentismoaren eta eskolagabetzearen dimentsioaz gain horiek izandako bilakaera ere erakutsi nahi du. Izan ere, aurreko ikasturteetan jasotako datuek erreferentzia gisa balio dute konparaketak ezarri ahal izateko. Konparaketa horien emaitza gisa esan daiteke ikasle absentisten kopuruak gorakada txikia izan duela aurreko ikasturtearekin alderatuta. Hala ere, datuak zehaztasun gehiagorekin aztertuz gero, Oinarrizko Irakaskuntzaren bi etapetan eta bi zentro motetan jarrera absentistarako larrienean beherakada izugarria izan dutela ikus daiteke.

Horrek guztiak indarra ematen digu benetan lanari gogotsu ekiteko, arazo hori ezabatze aldera. Bestalde, pentsatzen dugu ikastetxera sarritan eta modu iraunkorrean ez joateak nabarmen oztokatzen duela ikasleentzako garapen pertsonala, soziala eta akademikoa, eta epe luzean horrek baztertzea eta gizartetik kanporatzea eragiten duela.

Gainera, aurreko ikasturteetan esaten genuenez, urteotan zehar bizitako esperientziak, jardunbide onen azterketak eta azterlan konparatuek agerian jartzen dute eskola-absentismoa beste arazo batzuen "detektagailu" ona izan daitekeela, hala nola tratatu txarra, berdinen arteko erasoena, osasun arazoena Horrek, bestalde, berretsi egiten du berehala jokatu beharra dagoela, arazoa aurkitu bezain pronto.

Ikasturte honetan Bilboko Udalak ere parte hartu du absentismoaren jarraipena eta kontrola egiteko lanetan.

Helburu horri ere erantzun nahi zioten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako diputatuak eta EUDELeko Gizarte Gaien arduradunak, 2003ko apirilean "Hezkuntza eskubidea bermatzeko Programa: eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erauztea Bizkaiko lurraldean" aurkeztu zutenean. Hiru instituzioek adostu zuten eta ordudunik instituzioek aldatu egin dute eta 2015eko apirilean onetsi zuten.

Helburuen lorpena egiaztatze aldera eta parte hartzen duen instituzio bakoitzari hobekuntzako jarraibideak eskaini ahal izateko, programak berak jarraipen batzorde bat egotea aurreikusten du. 2014-2015 ikasturteari dagokion txosten honek jarraipen batzordeak bere gain hartu dituen eginkizunak betearaztea du helburu.

2 PROGRAMAREN HELBURUAK

Hona hemen programa hau abian jarrita lortu nahi diren helburuak:

- Derrigorrezko eskolatze-adinean dauden adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa saihesteko.
- Baztertuta dauden gizarte-inguruetatik datozen familiek 3 urtetik 6ra bitarteko adingabeak eskolara bidera ditzaten bultzatzea.
- Matrikulatuta dauden 3 urtetik 6ra bitarteko haurren eskolaratzea bultzatzea.
- Gai horren larritasunari buruz sentsibilizatzea, profesionalak, gizartea oro har eta zeregin horretan zuzenean diharduten pertsonak bereziki.
- Bertan esku hartzen duten instituzioek (Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura saila; Enplegu eta Gizarte politiken saila, udalak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Fiskaltza) koordinatuta lan egitea, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa prebenitzeko eta bi horien aurka esku hartu ahal izateko.
- Eskolagabetze-egoera, eskola-absentismoaren egoera eta abian jarri diren esku-hartzeen eboluzioa balioestea.

Txosten honetako atalek erantzuna eman nahi diete formulatutako helburuei, bereziki arazoaren hedadura zehazten saiatzen bada ere; izan ere, zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta egoera hobean egongo gara esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezen eta, azken batean, arazoa konpondu dadin.

3 DATUEN BILKETA

3.1 HONAKO TERMINO HAUEN DEFINIZIO OPERATIBOA: ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLA-ABSENTISMOA

Txosten honetan aurkezten diren datuak interpretatu ahal izateko, eskolagabetze eta eskola-absentismo terminoen definizio operatiboa bildu da, 2015eko apirilean onetsitako programa berriaren arabera:

- **Eskolagabetzea:** nahitaez eskolatuta egon behar duten adinean (6-16 urte) egon arren, ikastetxe batean matrikulatu gabe dauden adingabeen egoerari dagokio. (definizio honetan “ez matrikulatzea” bakarrik ageri da eskolagabetze modura, aurreko ikasturteetan emandako definizioaren aldean).
- **Eskola-absentismoa:** Eskola-absentismoa deritzo batere justifikaziorik gabe ikastetxera era jarraituan ez joateari, familiak berak onartuta edo bultzatuta edo ikaslearen beraren gogoz, aurrenerabe eta nerabeen kasuan. Hurrek nahitaez 6 urtetik aurrera eskolaratu behar badira ere, EAEn 3 urtetik aurrera eskolaratzen dira normalean, eta, beraz, prebentzio izaeraz eta izan daitezkeen aldeak parekatzeko, matrikulatuta dauden Haur Hezkuntzako 2. ziklotik aurrera aplikatuko da absentismo kontzeptua. Horregatik, absentismoa Derrigorrezko Irakaskuntzan edo Haur Hezkuntzan gertatzen denean, esku hartzeko modua ere desberdina izango da: azken kasu horretan, datuak ez dira Fiskaltzara igorriko, jarduketa-protokoloetan gero ikusiko dugunez, eta adin horretatik aurrera haurren eskolaratzea sustatzeko helburuarekin erabiliko da, batez ere gizartean egoerarik okerrenean dauden herritarren kasuan.

Kontzeptu horren definizio operatiboan, lau termino hauek bereiziko dira:

- **Absentismo-tasa:** hilabetean justifikatu gabeko hutsegiteen ehunekoa da. Honela zenbatuko da eskola-absentismoaren tasa: eskola huts egiten denean, hutsegite bat eskola egun osoari dagokio, eta beraz, soilik goizez edo arratsaldean joan ez bada, egun erdiz, hutsegite erdiz hartuko da. Baldin eta justifikatu gabeko hutsegiteak saio solteei badagozkie, ikastetxeak haiek batuta zenbatuko du hilabete osoan zehar huts egindako egunei dagokien zenbatekoa. (Txosten honetan absentismoa justifikatu gabeko hutsegiteen % 20 edo gehiago gisa hartzen da).
- **Metatutako absentismoa:** eskola-ikasturteko ikasketa-egun guztiak kontuan hartuta izandako hutsegiteen ehunekoa da (175). Proposatutako programan absentismoa honako hutsegite-metatze tarte hauetan identifikatu da:
 - ✓ % 10era arte
 - ✓ >% 10 - % 25

- ✓ >% 25 - % 50
- ✓ >% 50 - % 75
- ✓ >% 75 - % 100

- **Zuzendutako absentismoa:** ikasturte batean ikasle absentista izanda, hurrengo ikasturtean egoki eskolaratzen den ikasleen kopurua eta ehunekoa. (Txosten honetan, zuzendutako absentismotzat jotzen da gutxienez 2015eko apirilean, maiatzean eta ekainean absentismo-erregistroak izateari uzten dihonean).
- **Absentismo-indizea:** Ikastetxeko ikasle guztien artetik eskolara agertzen ez diren ikasleen ehunekoa da. Indize hori hezkuntza-etapen arabera zehaztuko da. Indize altuko ikastetxeetan modu berezian jokatu ahal izateko erabili ahal izango da indize hori.

3.2 DATUAK BILTZEKO ERABILITAKO PROZEDURA

Programan ezarritako protokoloa bete da. Hau da, hileko bosgarren eguna baino lehenago ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzari eta dagokien udalari erregistroko orriak bidali behar dizkiete, gorago azalduta dauden terminoen definizio operatiboaren arabera hileroko justifikatu gabeko hutsegiteen % 20 edo gehiago izan dituzten ikasleen izenekin beteta. Gainera, hiruhileko bakoitza amaitzean, ikastetxe guztiek (hileko absentismoko erregistrorik izan zein ez) bere ikasle absentisten egoera aztertzen duen sintesi-fitxa bat bidali behar izan diote Hezkuntza Ikuskaritzari, eta horrela hobetu egin da datu bilketaren kontrola.

Erregistroak jaso ondoren, ikastetxeko ikuskariak aztertu egiten ditu eta horretarako sortutako aplikazio informatikoan sartzen dira. Aplikazio hori diseinatu izanari esker jakin izan dugu 2014-2015 ikasturtean absentismo erregistroren bat izan duten ikastetxe eta ikasleen kopurua. Gainera, matrikulatzeko datuetarako aplikazio informatikoari esker, aurreko ikasturtean EAEn matrikulatuta zeuden ikasleak ikasturte honetan ere matrikulatuta ote dauden egiaztatu ahal da, ikasturte hasieran bertan.

4 ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAREN

4.1 OINARRIZKO IRAKASKUNTZA (LEHEN HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA)

4.1.1 Portaera absentista duten ikasleen kopuru osoa:

Absentismo erregistroren kopurua osoa 1.682 da. Kopuru hori Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen % 1,7 da.

Aurreko ikasturtearekin alderatuta, jokabide absentista duten edo eskolagabetze-egoeran diren ikasleen kopuruak gora egin du 86 kasutan. Batez ere ikastetxe publikoen Lehen Hezkuntzako absentismo erregistroetan gertatu da gorakada hori.

Hala ere, 1.682 absentismo kasuetatik 1.016tan ikus daiteke ikasturtean zehar justifikatu gabeko absentziak ez direla % 10era iristen. Mota horretako jokabidea "ohikoa ez den absentismo edo absentismo puntual" moduan har daiteke, kasu guztietan ere absentziak ikasturteko hilabete bakarrean gertatzen baitira (normalean irailean, abenduan edo ekainean).


Erregistroen maiztasunari buruzko zehaztasun hori kontuan hartuta, ikus daiteke absentismo kasu guztien (1.682) eta % 10etik beherako absentismo kasuen (1.016) artean 666 kasuko ezberdintasuna dagoela, eta kopuru horrek arazoari buruzko informazio zehatzagoa ematen digu, horiexek baitira ikasturte osoan zehar portaera absentista mantentzen duten kasuak, txosten honen 11. orrialdean jasotzen den legez. Zifra hori aurreko ikasturteko baino baxuagoa da (53 kasu gutxiago).

Baliteke absentismo erregistroek izandako gorakadaren arrazoiak kontrola izatea, gero eta zorrotzagoa baita. Egoera hori gertatzen den momentutik biltzen da kontrolari esker. Dena den, aldi berean absentismo kasurik larrienen izandako beherakada zerbitzu desberdinek egindako lanaren eta jarraipenaren ondorioa da ziurrenik, eta bereziki, Lehen Hezkuntzaren hasierako mailatan egiten den kontrol handiagoarena.

Bestalde, kontuan izan beharra dago eskaintako datuetan ez direla absentismorik larriena dutenak agertzen. Ikasle horiek % 100erainoko absentismoa dute ikasturtean zehar. Eskolagabetze kontzeptuaren definizioa aldatu delako gertatu da hori, ikaslea ikastetxe batean matrikulatzen ez denean bakarrik hartzen baita absentismo modura. Aurrerago ikusiko dugun legez, hori kasu berezia da guztiz. Eskolagabetze horretan eragin handia du familia batzuek egiten duten "etxeko irakaskuntzak", beste kausa batzuen artean.

Sexuaren arabera banatuz gero, absentismo eta eskolagabetze erregistroren bat duten ikasleen datuak honako hauek dira: **747 neska (% 44,4) eta 935 mutil (% 55,6)**

Ikasle absentisten banaketa sexuaren arabera



4.1.2 Jarrera absentista duten ikasleen banaketa, zentroaren titulartasunaren eta hezkuntza zikloaren arabera


Guztira 1.682 ikaslek izan dute jarrera absentista. Titulartasunaren eta dauden hezkuntza zikloaren arabera, honela banatzen dira:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHEN HEZKUNTZA			DBH			LEHEN HEZKUNTZA			DBH		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
31.669	883	2,8	17.720	489	2,7	32.820	124	0,4	21.251	186	0,9

Ikasturte honetan, zentro publikoetan eta hezkuntza ziklo bietan ez dago alde handiegirik jarrera absentista duten ikasleen ehunekoen artean eta Lehen Hezkuntzan altuagoa dela ere esan daiteke. Erne egon behar dugu, adin goiztiarretan esku hartzen jarrai dadin.

Bestalde, aurreko ikasturteetan gertatu den legez, ikastetxe publikoei dagozkien portzentajeak askoz handiagoak dira ikastetxe pribatu itunduetakoak baino, eta horren arrazoiengatik azalpena ematen da txosten honen 25. orrialdean.

Ikasle absentisten banaketa sexuaren arabera



4.1.3 Ikasle eskolagabetuak

Txosten hasieran esan bezala, Bizkaiko ikasle eskolagabetuen egoera oso berezia da eta gainera, familien hartutako erabakiaren arabera da. Izan ere, horiek beren seme-alabak eskola-sistematik kanpo heztea erabaki dezakete. Aurreko ikasturtean hiru kasu hauteman ziren, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Hezkuntza Ikuskaritzak kasu horien berri eman zion Fiskaltzari.

4.1.4 Absentismo metatua. Hutsegiteen ehunekoa ikasturtean zehar

4.1.4.1 Ikastetxe publikoetako ikasle absentistak

LEHEN HEZKUNTZA								
GUZTIRA	% 25		>% 25 - % 50		> % 50 - % 75		>% 75 - % 100	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
883	796	90,2	56	6,3	17	1,9	14	1,6

Aurreko taulan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten ehunekorik handiena (% 90,2) ikastetxe publikoetan % 25erainoko tartean kokatzen da.

Bestalde, arazoaren adibiderik larrienen ehunekoa baxuena da, % 1,6, aurreko ikasturtekoa baino baxuagoa (kasu hartan % 2,4 izan zen).

Ikasturte honetan, aurrekoan egin genuen moduan, sakonago aztertu dugu % 25eko tartea (gehienez ikasturteko egunen % 25 eskoletara joan gabe). Bitan banatu dugu: bata % 10era bitartekoa, absentismo anekdotiko edo berezia izango litzatekeena, eta gainerakoa % 25era bitartekoa. Hona hemen datuak:

	Absentistak k GUZTIRA	< % 10		% 10-25		% 25	
		Kop.	%	Kop.	%	Nº	%
BIZKAIA	883	599	67,9	197	22,3	796	90,2

Ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako absentista kopuru osoari (883) 599 kentzen badizkiogu, absentismo kasu bereziak direlako, 284 absentista izango genituzke eta arazoaren errealitatea hobekien erakusten duen zifra dela uste dugu.

Ikus dezagun metatutako absentismoaren egoera zein den, ikastetxe publikoetako DBHn, tarteka:

DBH								
Absentistak GUZTIRA	% 25		> % 25 - % 50		> % 50 - % 75		> % 75- % 100	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
489	378	77,3	65	13,3	31	6,3	15	3,1

DBHn, absentismoaren ehunekorik handiena ere (% 77,3) % 25erainoko tartean biltzen den arren, Lehen Hezkuntzan ageri dena baino txikiagoa da. Horrenbestez, absentismorik larrienerako tartetean DBHn Lehen Hezkuntzako etapan ematen dena baino portzentaje handiagoak erregistratzen dira. >% 75eko tarteari dagokionez, % 3,1 hartzen du. Ehuneko hori ere aurreko ikasturtekoa baino baxuagoa da, kasu hartan % 6,5koa izan baitzen.

Lehen Hezkuntzan egin den moduan, % 25eko tartea banatzen badugu, ikastetxe publikoetako DBHko absentismoari buruzko datu hauek lortuko ditugu:

	Absentistak GUZTIRA	< % 10		% 10-25		% 25	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
BIZKAIA	489	249	50,9	129	26,4	378	77,3

Ondorioz, ikastetxe publikoetako DBHko absentista kopuru osoari (489) 249 kentzen badizkiogu, noizbehinkako absentismo kasuak direlako, **240** absentista izango genituzke eta arazoaren errealitatea hobekien erakusten duen zifra dela uste dugu.

4.1.4.2 Ikasle absentistak ikastetxe pribatu itunduetan

LEHEN HEZKUNTZA								
GUZTIRA	% 25		> % 25 - % 50		> % 50 - % 75		> % 75 - % 100	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
124	106	85,5	11	8,9	5	4	2	1,6

Ikastetxe pribatu itunduetan ikasleen metaketarik handiena gertatzen da lehen tartean, hau da, ikasturtean hutsegiteen % 25 gainditzen ez dutenena; % 85,5era heltzen da hemen.

% 25eko tartea banatuz gero, arestian egin den moduan, honako datuak lortuko genituzke:

	Absentistak GUZTIRA	< % 10		% 10-25		% 25	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
BIZKAIA	124	69	55,6	37	29,9	106	85,5

Ikastetxe pribatu itunduetako Lehen Hezkuntzako absentista kopuru osoari (124) 69 kentzen badizkiogu, absentismo kasu bereziak direlako, **55** absentista izango genituzke eta arazoaren errealitatea hobekien erakusten duen zifra dela uste dugu.

Ikus dezagun metatutako absentismoaren egoera zein den, ikastetxe pribatu itunduetako DBHn, tarteka:

DBH								
GUZTIRA	% 25		> % 25 - % 50		> % 50 - % 75		> % 75 - % 100	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
186	138	74,2	28	15	13	7	7	3,8

Ikastetxe pribatu itunduetako DBHn ere absentismoaren kontzentrazio txikiagoa ageri da % 25eko mailan, hemen % 74,2ra heltzen dena

Hala ere, absentismoaren ehunekorik larriena 3,8koa da. Nabarmen egin du behera aurreko ikasturtearekin alderatuta, orduantxe % 9,2koa baitzen.

% 25eko tartea banatuz gero, arestian egin den moduan, honako datuak lortuko genituzke:

	GUZTIRA	<% 10		% 10-25		% 25	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
BIZKAIA	186	99	53,2	39	21	138	74,2


Ikastetxe pribatu itunduetako DBHko absentista kopuru osoari (186) 99 kentzen badizkiogu, absentismo kasu bereziak direlako, **87** absentista izango genituzke eta arazoaren errealitatea hobekien erakusten duen zifra dela uste dugu.

Jarraian ageri den taulan atal honetan bildutakoa laburtu dugu, jarrera absentistaren zenbaki absolutuak eta ehunekoak adieraziz, % 10etik beherako absentismo metatua kenduta.

Ikasle absentisten banaketa, % 10etik beherako absentismo metatua kenduta

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHEN HEZKUNTZA			DBH			LEHEN HEZKUNTZA			DBH		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
31.669	284	0,9	17.720	240	1,3	32.820	55	0,2	21.251	87	0,4

Ikasle absentisten banaketa sexuaren arabera, % 10etik beherako absentismoa izan duten ikasleak kenduta



Grafiko hori 4.1.2. puntukoari lotuta dago, noizbehinkako absentismoa adierazten duen % 10etik beherako absentismo metatua kendu delako. Horrela agerikoagoa da arazoaren larritasuna.

4.1.5 Absentismo zuzendua


IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK			
LEHEN HEZKUNTZA Absentisten kop. 883		DBH Absentisten kop. 489		LEHEN HEZKUNTZA Absentisten kop. 124		DBH Absentisten kop. 186	
Zuz. kop	%	Zuz. kop	%	Zuz. kop	%	Zuz. kop	%
501	56,7	242	49,5	69	55,6	88	47,3

Aurreko taulako datuek absentista izateari uzten dioten edo gutxienez ikasturteko azken hiruhilekoan ez diren ikasle absentisten kopuru absolutu eta portzentajeen berri ematen digute. Hauexek izan daitezke absentismo horren zuzenketaren zioak: instituzioek arazo hori gainditzeko egindako esku-hartzeak, edota portaera absentista eragin bide duen egoeraren araberako inguruabarra desagertzea; izan ere, absentismoaren definizio operatiboaren barruan sartzen dira hainbat zioengatik egunen % 20an justifikatu gabe huts egiten dutenak, hilabete batean bakarrik gertatu arren.

Datu hauen bidez ikus dezakegu arazoaren dimentsiorik larriena, hots, esku-hartze guztiak gorabehera ikasturtean zehar portaera absentistari eusten diotenena. Kopuru hori ateratze aldera, aurreko taulako datuak kentzen zaizkie txosten honetako 4.1.2 atalean daudenei, eta Lehen Hezkuntzako 437 ikaslera heltzen da (% 0,7) eta DBHko 345 ikaslera (% 0,9).

Honako datua nabarmendu beharra dago: gerta liteke ikasleren bat absentismo zuzenduari buruzko datuetan ez agertzea, izandako erregistro bakarra ekainean izan delako adibidez, eta hala ere, aurreko orrialdeko taulatik ezabatu izana, noizbehinkako absentismo edo absentismo anekdotikoaren horretatik. Azaldutako hori zuzendu egingo da hurrengo txostenetan, “absentismo zuzenduaren” definizioa aldatuko baita. Izan ere, absentistak izan diren eta ikasturte honetan hala izateari utzi dioten ikasleak bakarrik kontsideratuko dira atal honetan.

Absentismoaren zuzenduaren ehuneko sexuaren arabera



4.1.6 Udal Gizarte Zerbitzuetara, Foru Aldundira eta Fiskaltzara bideratutako espedienteen kopurua

	Bideratutako espedienteen kop	(1) %	(2) %
Udalen Gizarte Zerbitzuak	1.145 (3)	49,9	0,8
Foru Aldundia	34	1,5	0,02
Fiskaltza	43	2,5	0,04

(1) Absentismo kasu guztien gaineko %. Fiskaltzaren kasuan ehunekoa derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.

(2) Derrigorrezko irakaskuntzako eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztien gaineko %. Fiskaltzaren kasuan ehunekoa derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.


(3) Ikastetxeek erregistro orrietan emandako informazioa.

Kasu guztietan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak eskola absentismoari buruz bidalitako jakinarazpena jaso ondoren, Fiskaltzak honela jarduten du:

- Argiketa egiteko eskatzea Ertzaintzari, ondorio horretarako egindako protokolo baten arabera.
- Haur eta nerabe absentisten familiei zitazioa ematea.
- Eskolatuta dauden ikastetxeari justifikatu gabeko hutsegiteen hileko erregistroa bidaltzeko eskatzea, jarraipena egiteko.

Arazoak bere horretan jarraitzen duenean, hiruhileko jarraipen hori derrigorrezko eskolatzea amaitu arte mantentzen da, eta hala gertatuz gero, gurasoen aurka salaketa jartzeari ekin behar zaio, familiaren abandonua dagoela baloratzen den kasuetan.

Zerbitzuetarako deribazioa sexuaren arabera




4.2 HAUR HEZKUNTZA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
15.755	577	3,7	15.897	37	0,2

Haur Hezkuntzako 2. zikloari dagozkion datuak eskaintzen dira, derrigorrezko maila izan ez arren, hasiera-hasieratik egoera horiek identifikatzea garrantzitsua dela uste delako eskolatzea sustatzeko, gizarte alderdian ahulak diren herriguneeen kasuetan batez ere. Hezkuntza-etapa honetan ere ikusten da absentisten kopuruak gorakada txikia izan duela ikastetxe publikoetan.

Ikasle absentisten banaketa Haur Hezkuntzan, sexuaren arabera



4.3 ABSENTISMOAREN BANAKETA IKUSKAPEN-EREMUEN ARABERA

Guztira	Eremuak			
	1	2	3	4
135.112 (1)	26.479 (% 19,6)	32.013 (% 23,7)	43.287 (% 32)	33.333 (% 24,7)
2296 (2) (1,7%)	90 (% 3,9)	105 (% 4,6)	1.278 (% 55,7)	823 (% 35,8)
Absentismo indizea	(% 0,3)	(% 0,3)	(% 2,9)	(% 2,5)

- (1) Guztizko horretan Bizkaiko lurraldeko Oinarrizko Irakaskuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztiak zenbatzen dira. Guztizko hori lau ikuskapen-eremutan banatzen da taulak adierazten duen bezalaxe. 1. eremua Durangaldea, Lea-Artibai eta Busturialdeari dagokie. 2. eremua Uribe eskualdeari. 3. eremua, Bilbo eta Goi Nerbioiri, eta 4. eremua, aldiz, Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri.
- (2) Bizkaiko Oinarrizko Irakaskuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzan portaera absentista eta eskolagabetua duten ikasleen guztirako kopurua da.

Ikus daitekeenez, banaketa hori ez da berdintsua eremu guztietan. Aitzitik, batez ere 3. eta 4. eremuetan biltzen da.

4.4 IKASTETXE KALTETUEN KOPURUA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
KOP. OSOA	Kaltetuak	%	KOP. OSOA	Kaltetuak	%
260	157	60,4	142	66	46,5

Portaera absentista duten eta/edo eskolagabetuta dauden 6 ikasle edo gehiago dituzten ikastetxeak

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
KOP. OSOA	Kaltetuak	%	KOP. OSOA	Kaltetuak	%
260	73	28,1	142	24	16,9

Bigarren taula horretako kopuru eta ehunekoek eskola-absentismo arazoaren kaltea duten ikastetxeen irudi errealistagoa eskaintzen dutelakoan gaude; izan ere, lehenengo taulan islatzen dira erregistroren bat izan duten ikastetxe guztiak, ikasle bati dagokion erregistro bakar bat izanagatik ere.

5 ESKOLA-ABSENTISMOA HEZKUNTZA-IKERKETAREN ARGITAN

Arazo honen dimentsioa, txikia izanik hezkuntza sistemaren ikuspuntutik, ez da hala norbanakoaren ikuspuntutik, eskola porrota eragiten duen egoera hori baita pertsona horien geroke bazterketa sozialaren arrazoietakoa bat. Arrazoi horregatik, txosten honetan, aurrekoetan bezala, J. Delorsek (1996) zuzentzen zuen XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako Txostenean ageri dena azpimarratzen dugu:

"Herrialde askok, batez ere herrialde garatuek, gaur egun hezkuntza politiketarako oso harrigarria den fenomenoak jasaten dute: eskolatze-aldia luzatzean paradoxa da gizartean ahulenak diren edo eskola-porrota jasaten duten gazteen egoera larriagotzea, boberantz egin ordez. Munduko hezkuntza arloko gasturik handienak dituzten herrietan ere, eskolako porrotak eta bertan behera uzteak ikasle askori eragiten diete. Gazteen kategoria biren arteko zatiketa sortzen da, are zatiketa larriagoa, lan arloan irauten duela kontuan hartuta. (...) Bazterkeria sortzen duen aldetik, eskolako porrota kasu askotan indarkeria molde batzuen edo norbanakoen galbideen sorburua da. Gizartearen ehuna urratzen duten prozesu horien ondorioz, eskolari gizarte bazterkeriaren eragile izatea leporatzen zaio eta aldi berean eskolari integratzearako edo berrintegratzearako funtsezko erakunde gisa dei egiten zaio. Hezkuntza politikari planteatzen zaizkion arazoak bereziki zailak dira; eskolako porrotaren aurkako borroka, beraz, gizarte-agindua izan behar du" (61. or.)

Ikerketa ezberdinek arazo hori jorratzen dute, horien arabera eskolagabetzearen ondorioak larriagoak baitira orain enplegu osoa zegoen garaian baino. Esterle Hedibelen "Frantziako absentismoaren eta eskolagabetzearen prebentzioa eta tratamendua: esperientziak eta jardunbide berriak" artikuluan (2005) baieztatzen denez, "enplegu bat betetzeko eskatzen den trebakuntza maila gaur egun handiagoa da, eta eskola-sistema titulurik gabe eta/edo 16 urte bete baino lehen uzten duten ikasleen gizarte eta lanbide arloko iguripenak askoz txikiagoak dira".

"Eskola absentismoa hezkuntzaren kalitaterako erronka gisa" izeneko hezkuntza-ikerketako lanak J. Rué, M. Amela eta M. Buscarons-ek egin (2003), ondorioztatzen du ikerketa horrek errealitate konplexu baten aurrean jarri dituela. Errealitate horrek ikasle zehatz batzuekiko mugak agertu ditu, baina horrez gain, beste bide batzuk ere erakutsi ditu irakaskuntzan jarduteko eta derrigorrezko hezkuntzako erabiltzaile guztiei kalitate bermeak eskaintzeko. Horrek pentsamolde aldaketa dakar: eskolatze berria gehiago hartu behar dugu kontuan, hau da, azaleratzen diren egoera pertsonal berezi edo espezifikoei bezainbesteko arreta eskaini behar diegu agertzen diren eskaerei, ikasle absentista motei esaterako. Ikasle horiek, eurentzat izan arren bere eginkizuna aintzat hartu ezin duten edo, are txarrago, zuzenean gaitzesten duten erakunde baten aurkako hainbat erronka mota agertzen duten sektorea dira.

M^a Teresa González González andrearen "Absentismoa eta eskola-uztea: hezkuntzako bazterkeriaren egoera berezia" artikuluan (2006), absentismoaren arazoari heltzen zaio, eta ikaslearen gaineko fokua bakarretik (famili ezaugarriak, bizi den komunitatearenak, bereizgarri pertsonalak, portaera akademikoak...) eskola-antolakuntzaren eta hezkuntza politiken fokura igarotzen da, eta zera dio ondorio gisa:

- Absentismoa eta eskola-uztea saihesteko jarduketa oro eraginkorra izateko, ikastetxeko kide guztiak ados egon behar dira honako honetan: bertaratzea hobetzeko, aldaketa esanguratsuak egin behar dira ikasteko giroen kalitatea hobetze aldera.
- Garatzen diren estrategia eta planen abiapuntua honako hau izan behar da: ikastetxeak azterketa egin behar du, eta ulertu egin behar du zergatik ez doazen ikasleak eskolara, zergatik deskonektatzen diren curriculumetik, zergatik ez zaizkion lotzen lan akademikoari, ezta gizarteari ere... Hortaz, ezinbestekoa da jakitea zein neurritan eragiten duten egiturek beraiek, eskaintzen diren curriculumek eta gelako irakaskuntzek, inguruarekiko harremanek eta ikastetxearen funtzionamendua egituratzen duten ustek bertaratze eta eskola-uzte arazoetan.

Ildo horretatik, Miguel Ángel Santos Guerrak (2012) esandakoaren arabera, absentismoari eta eskola-porrotari buruzko azalpen guztietan ikasleen ego familiaren hutsak aipatzen direnean: *"ezinezkoa da edukien izaerari eta egiturari, profesionalak erabilitako metodologiari, egindako ebaluazioari, ikasgelako giroari, eskatzen den mailari, ikastetxearen beraren zentzuari eta abarri buruzko galderak agertzea. Eta galderarik gabe, zaila da erantzunak bilatzea. Diagnostikoa gaitziki eginda dagoenean, emaitzak ere akastunak izaten dira"*.

Europar Batasuneko INCLUD-ED Ikerketako Esparru Programen barruan, A. Flecha, R. García, A. Gómez eta A. Torreren (2009) "Eskola arrakastatsuetan parte hartzea: ikerketa komunikatiboa" artikuluan agerienez, eskolaren eta familiaren arteko harremanean oinarritzen diren ikerketek frogatu egin dute familien eta komunitatearen partaidetzak areagotu egiten duela kultura gutxituetako kide diren edo minusbalotasuna daukaten ikasleen errendimendua (Caspé, López eta Wolos, 2007; Dearing, Kreider, Simkins eta Weiss, 2006; Driessen, Smith eta Slegers, 2005; Hess, Molina eta Kozleski, 2006; Merry, 2005). Nazioarteko komunitate zientifikoak jada ezagutzen dituen ekarpen horiek, hezkuntzaren arrakastarekin lotzen diren parte-hartze motak zeintzuk diren jakiteko sakontzea eskatzen zuten. Includ-ed proiektuaren emaitzek, komunitateak ikastetxeetan parte hartzeko molde batzuen sailkapena ekarri zuten: informatiboa, aholku-emailea, erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezitzailea. Argi eta garbi ikusi da familien eta komunitatearen parte hartzeko jokabide jakin batzuek lotura daukatela maila sozioekonomiko txikiko eta talde gutxituetako ikasleen arrakastarekin: familien prestakuntza, komunitatearen esku-hartzea erabakia hartzeko prozesuetan eta parte-hartzea curriculumaren garapenean eta ebaluazioan.

2009ko azaroko "Mundu aldakor baterako funtsezko gaitasunak" izeneko agiriak (Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzorde zientifiko eta sozial europarrari eta Eskualdeen batzordeari) hauxe dio: *"Metodo berritzaileak, adibidez ikasketaprograma pertsonalizatuak eta esperimentazioan oinarritutako ikasketa, bereziki erabilgarriak izan daitezke eskolako esperientzia negatiboak edo porrotez beteak jasan dituztenentzat"*.

Carlos Ferreirós fiskalak (2011) derrigorrezko irakaskuntzari eta Fiskaltzak egin ahal duen esku-hartzeari buruz egindako azterlan luze eta zorrotzean azpimarratu egiten da herri garatuetako haurren babeserako xedapenen eraldaketaren ardatza, hain zuzen ere haurrak eta nerabeak *eskubidedun subjektu* gisa kontuan hartzea. Bertatik sortzen da babeserako espedienteak eraentzen dituen funtsezko printzipioa, "adingabearen interesa". Printzipio horrek gidatu behar du botere publikoek adingabeen eskubidea -kasu honetan hezkuntzarako eskubidea- jardunbide desegokien aurka babesteko egin beharreko esku-hartzea, jardunbide horiek familiek ontzat eman arren.

Carlos Vázquez González zigor zuzenbideko irakaslearen artikuluan (2013), botere publikoek eta familiek hezkuntzarako eskubidea bermatu behar dutela aipatzeaz gain, gizarte-bazterkeriarekin, marjinazioarekin eta gaizkiletasunarekin erlazionatutako absentismoak gizartean eragiten duen arazoa aztertzen da. Izan ere, ikerketa kriminologikoan egiaztatu ahal izan den legez, eskola-porrotak edo eskola-uzte goiztiarrak eragina du gazteen gaizkiletasunean.

Maribel García García irakasleak (2009) eskola-absentismoaren kausa zahar eta berriak identifikatu ditu. Kausa zaharrek egiturazko gizarte-ezberdintasunetan dute jatorria (ezberdintasun ekonomiko, sozial eta kulturalak), eta baita hondarreko zenbait berezitasun kulturalen biziraupenean ere. Horiek guztiak Lehen Hezkuntzan ikusten dira argi eta garbi. Kausa berriek, aldiz, eskolatze-garaia luzatu izanari loturiko absentismo-egoerei buruzkoak dira. Ikasten eman beharreko epea luzatu izanaren ondorioz, 14 eta 16 urte bitarteko zenbait ikasleek eskolan jarraitu behar dute euren interesak eta igurikimenak bestelakoak izan arren, eta horrenbestez, eskolak ikasle-profil berri horren ezaugarrietara egokitu behar ditu bere metodoak eta antolamendu pedagogikoa.

José Luis Martínez Pérezen doktorego-tesiak (2009) jasotzen duenez, eskola-absentismoa eragiten duten faktoreek hezkuntza-sistemaren funtzionamendu konkretuarekin izaten dute zerikusia sarritan. Eskola-absentismo kasu gehienetan funtsezko papera jokatu ohi du ikastetxeak berak. Ikastetxeak eskaintzen dituen aukerek hezkuntza-aukerak irekitzen edo ixten dituzten heinean, aurrebaldintzek eragin handiagoa edo txikiagoa izango dute portaera absentistak eragiten dituzten faktoreengan. Horrenbestez, eskola-absentismoa eskolaz kanpoko faktore batek eragiten duen kasuetan ere eskolak paper garrantzitsua izan dezake, ikasleari eskain diezazkiokeen hezkuntza-aukerari eta eskola-integrazioari dagokienean.

M^a Teresa González González irakaslearen "Eskola-absentismoa: ikastetxetik nola erantzun" artikuluan (2014), berriro dio ikastetxe orok eskola-absentismoa prebenitzeko edo ahalik eta arinen esku hartzeko kontuan izan beharke lituzkeen planteamendu, estrategia eta neurriei erreparatzea beharrezkoa dela. Prebentzio politika modura jarduteak ikastetxearen funtzionamenduaren zenbait alderdiri jaramon egitea eta hobetzea esan nahi du, alderdi horiek ikasleek bizi duten eskola-esperientzia kaltetzen dutenean. Horrela, ikasle horietako batzuk ikastetxetik, ikasgeletatik eta hezkuntzatik urruntzen edo aldentzen joatea prebenituko litzateke; izan ere, aldentze horrek jarrera absentista eragiten du eta denborarekin areagotu egiten du jarrera hori. Ildo horretatik, absentismoa ekiditen duen eta horren aurka gehien babesten duen faktorea ikastetxearekin eta ikasketarekin ahalik eta gehien inplikatzeko da. Horretarako, ikastetxea ikasleak harrapatzeko gai den erakunde modura itxuratu behar da, bertako giroan zentratuz, dinamika kurrikularrak landuz eta ikasteko giro egokia sortuz, toki erakargarriagoa izatea lortzeko, ikasleek egon nahi duten toki bat. Horretarako, ikastetxeak giro positiboa nola lor dezakeen aztertu behar du, ongiatorria ematen duen giroa, segurua, akademikoki erronkaria eta ikasle guztientzako pertsonalizatua dena. Gainera, administrazioen eta gizarteko sektore eta mankomunitateen arteko lankidetzan eta koordinazioan oinarritutako ekintzen alde egin behar du. Familien lankidetzak eta inplikazioa ere berebizikoa litzateke. Zentzu horretan, hezkuntza zentroek zerbitzu desberdinekiko harremana lantzeko mekanismoak abiarazi behar direla dio, zerbitzu horiek baliabideak ematen dituztelako eta batez ere, erkidegoa sustatzen dutelako: interdependentzia- eta laguntza-sareak familien baitan

eta kanpoan, bizilagunen artean, zerbitzuetan eta ikastetxean. Azken batean, nerabeak mugitzen diren gizarte-egitura indartzea litzateke.

Egile horien teoria eta hausnarketa horiek guztiak bermatuta daude, beren eguneroko lanean eta maila txiroetakoak diren eta baztertuak izateko arriskuan dauden ikasleekin zuzeneko harremanetan esperientzia dutelako eta ondo jarduten dutelako. "Jardun on eta eraginkorren" eredia dira absentismoaren aurkako borrokan, ikasleen gaitasun mailaren hobekuntzan, familiekiko lankidetzan, desabantaila soziala gainditzean, eta azken finean, ikastetxea ingurua eraldatzen duen eragile bihurtzean, beste erakunde batzuekin lankidetzan arituz.

María Eugenia Sánchez Guerrero adibide da aipatutakoen artean. Sevillako Paulo Orosio Haur eta Lehen Hezkuntza Zentroko zuzendaria da eta 2014. urtean hitzaldia eman zuen Bilbon egin ziren eskola-absentismoari buruzko jardunaldietan¹. Ikasgeletan duen esperientziaren emaitza modura, bere zentroan ebaluazio diagnostikorako probetan errendimendu akademikoa hobetzeko eta eskola-absentismoa erazteko gakoetako bat zein den azaldu zuen: irakasleen inplikazioa, metodologia egokia eta ikasleen interesetara egokitua (proiektuekin lan egitea), familien inplikazioa ikastetxean eta hezkuntzan, prebentzioa eta jarraipena, inguruko erakunde eta eragile guztien inplikazioa eta lankidetzatza (gizarte zerbitzuak, udaltzaingoa, pediatriak, buru osasuneko zentroak, kale hezitzaileak, herritar plataformak, GKEak...), derrigorrezko bigarren hezkuntza eskaintzen duten zentroekiko koordinazioa... Horiek guztiek eragina dute eskola-absentismoa erazteko orduan.

Jordi Longás Mayayo jaunak, Ramón Llul Unibertsitateko irakasleak, beste adibide bat eskaini zigun 2015eko apirilaren 23an Bilbon egin zen eskola-absentismoari buruzko jardunaldian. Eman zuen konferentzia, "*Hezkuntzaren arloko laguntza inguru konplexuetan. Sarean lan egitea eta erakundeen arteko lankidetzatza eskola-arrakasta hobetzeko*", laburtu dugu jarraian²:

Eragileei eskola-arrakasta lortzeko hezkuntza proiektu bat lantzea ahalbidetzen dien ikuspuntu global bat planteatzen du. Neuronaren metafora erabiliz, lau printzipio planteatzen ditu:

1. *printzipioa: konplexutasunetik begiratzea* (eta ez sinplifikazioa, interdependentzia, eredu ekologikoa, ikuspegi sistemikoa).

Gure arrakasta eta porrota inguruan bizi izan dugunarekin erlazionatuta daude gehienbat, eta ez horrenbeste gure merituekin. Zentzu horretan, beharrezkoa da ez sinplifikatzea. Eredu ekologikoaren ideia hori aitortu beharra dago, ez banakako lanaren ideiarekin dagokionez bakarrik, hezkuntza zentro modura ere bai, gizartean zeregin garrantzitsua duelako. Baliteke ikuspegi sistemikoak orain arte segurtasun handia eman digun zerbait baztertzera eramatea: beharizanen zatiketa hori, diziplina zientifikoaren zatiketaren ondorio zena, espezializazio handia eskatzen zuelako. Eskema honetan, arriskuan dauden haurren problematika anitzari jaramon egitea litzateke gin beharrezkoa, politiken edo ekintzen aniztasun globalago eta koordinatuagoa garatuz.

2. *printzipioa: Pertsona (herritarra) esku-hartzearen erdian*

Pertsonalizatzeko, erdian jarri behar ditugu pertsonak eta pertsonen laguntzeko gai diren sistemak eduki behar ditugu; izan ere, denbora beste gai burokratiko batzuekin igarotzen dugunean, gaizki ateratzen da zerbait. Espazio horiek berreskuratu behar dira, erdian dagoen herritarren ideia hori lantzeko eta loturak identifikatzeko. Logikoa litzateke pertsonekin zuzenean jarduten duten zerbitzuak beren artean koordinatuago egotea, zeharka. Horretarako,

¹ <http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/129>

² <http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2014-20151>

erakundeak lankidetzan aritu behar dira haien artean, profesionalen borondatea ez baita nahikoa. Erakundeen arteko esparrua beharrezkoa da.

3. *printzipioa: lurraldea erreferente modura* (hurbiltasunerako, gobernantzarako, tokikoaren eta globalaren arteko orekarako, demokraziarako, gizartearen iraunkortasunerako eta abarretarako politikak).

bizia jokatzen dugu ikastetxean, anbulatorioan, supermerkatuan, bizi garen kalean... Asko dago gure inguruan. Jendea inplikatzeko laguntzen duen gobernantza maila altua egon daitekeen lekuetan...

Bi kontzeptu garrantzitsu daude: a) gobernantza maila: nire lanbidean, nire lanean, oro har gizarte guztiaren ardura dugula sentitu behar dugula ulertzea da, eta ez bakarrik guk zerbitzatzen dugun zatiarena. Nire begirada desberdina bada eta niri dagokidala sentitzen badut, ongizate publikoarekin konprometituta egongo gara. Hala ere, hurbileko gobernu hori mehatxupean dago (murrizketa finantzarioak, lege-aldaketak...); b) tokikoaren eta globalaren arteko oreka: nortasunak barreiatuz doaz, norberarena, herriarena... Nortasun kolektiboa barreiatuz doa eta horren aldean, egoaren gurtza sublimatzen ari da, eta horrek ia patologikoak diren muturretara garamatza (horren adibide da bere buruaz beste egin zuen pilotuaren kasua, hegazkineko bidaiari guztiak berarekin eramane zituena hedabideetan agertzearen). Oso garrantzitsuak diren elementuak daude, parte-hartzeari, autonomiari, autokudeaketari eta abarri buruzkoak eta horiei dagokienez, badago herri modura proiektu bat garatzeko aukera. Hiri handietan hiri hezitzailearen ereduak aurki genezake. Tribu oso bat behar da haur bat hezteko. Horixe da ideia, gizarte hezitzailea duen ingurua lortzeko modua aurkitzea, hobeto bizitzeko. Hurbiltasuna eta ikastetxearen egitekoa garrantzitsuak dira, bertan elkarrekin bizitzen eta herritarra izaten ikasten dugulako. Gure ikasle guztiek ikasi beharko lukete hori.

4. *printzipioa: sare-eredua proposamen gisa* (lankidetzarako kultura, informazio trukea, ikuspegi globala eta komunitate-proiektua, horizontaltasuna eta zeharkakotasuna, kapital soziala).

Norberaren neurona-sareak automatikoki funtzionatzea ahalbidetzen digu. Gure bihotzak taupadaka jarraitzen du etengabe, gure burmuineko parteren batek hala egiten jarraitzeko esaten diolako. Sare sozialaz ari garenean, antzeko zerbaitetaz hitz egiten ari gara. Gizarte batzuetan funtzionamendu automatikoa beste batzuetan baino hobea da, eta badaude beste batzuk baino adimentsuagoak diren gizarteak, arazoetan aurrera pauso gehiago ematen dituztelako, beharrezko inguruko erabaki hobeak hartzen dituztelako eta etorkizunerako estrategikokoak eta positiboagoak diren jarduketak-lerroak jarraitzen dituztelako. Gizarte horiek hobeak dira pertsonentzat. Horrek estrategia sozialen egitura bat eraikitzeko modu batetan pentsatzera garamatza, gure burmuinaren gisan funtzionatuko lukeena. Hortik dator sare-ereduaren ideia hori, pertsonak babesten dituen eta haien artean lotzen eta hurbiltzen dituen. Horrela, eragile hezitzaile bakoitzaren esku-hartzeak eraginkorragoak dira.

Azkenik, Europar Batasunaren 2020. urterako helburuetako bat da eskola uztearen portzentajeak % 10 baino gutxiago izan beharra, eta belaunaldirik gazteenaren % 40k gutxienez goi mailako ikasketa osoak eduki beharra. Kontuan hartzen badugu "eskola-uztea" terminoarekin Derrigorrezko Irakaskuntza bukatu ostean beste ikasketarik egiten ez duten gazteen portzentajea adierazten dela, arazoa askoz larriagoa da absentisten kasuan; izan ere, horiek, arazoak iraunez gero, ez lukete Oinarrizko Irakaskuntza ere amaituko.

6 BILBOKO UDALAREN ESPERIENTZIA ADINGABE ABSENTISTEKIN IZANDAKO ESKU-HARTZEAN

ESKOLA-ABSENTISMOA PREBENITZEKO, HAUTEMATEKO ETA KONTROLATZEKO PROGRAMA BILBON

Bilboko Udalak, Hezkuntza Sailaren bitartez, 80ko hamarkadan udalerriko hezkuntza zentroetan matrikulatuta zeuden adingabe absentistekin hasi zuen esku-hartzea. 90eko hamarkadaren hasieran lehenengo koordinazio protokoloa onetsi zen, Hezkuntza Sailaren, Herritarren Segurtasunerakoaren (Udaltzaingoa) eta Gizarte Ongizaterakoaren artekoa. Protokolo hori urtero berritzen zen eta derrigorrezko eskolaratzea betetzen zela bermatzeko udal konpromisoa zen, Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko Legean adierazitakoari jarraituz. Garai hartan hainbat jarduketa gauzatu ziren modu koordinatuan, hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetzan aritzeko lehenengo udal hitzarmenak Hezkuntza Sailean kudeatu baziren ere, egoera horren aurrean arreta berezia emateko eta hezkuntza zentroetan bitartekarien lana eraginkorra izateko.

1998. urtean Gizarte Ongizaterako Sailak, modu paraleloan eta lankidetzaz hitzarmenen bidez baita ere, adingabe absentistekin esku hartzeko konpromisoa hartu zuen bere gain, Otxarkoagako, Alde Zaharreko eta San Frantziskoko hezkuntza zentroetan. Hala izan zen 2008ra arte. Urte horretan Gizarte Ekintza Sailak Hezkuntza Sailari eskualdatu zion hitzarmen horiek kudeatzeko ardura. Horrela, Udalaren esku-hartzea zentralizatu zen berriro ere. 2009. urtean Bilboko Udalak, Hezkuntza Sailaren bitartez, lehenbiziko aldiz atera zuen lizitazio publikora eskola-bitartekarien taldeen kontratazioa, udalerriko hezkuntza zentro guztietan eskola-absentismoa prebenitzeko eta kontrolatzeko eta arazo horren aurrean erantzuteko. Beraz, udal zerbitzu modura aitortu zen esku-hartze hori.

Modu paraleloan, Gizarte Ekintza Sailetik, arriskuan dauden haur eta nerabeekin egindako udal esku-hartzea berriro diseinatzen hasi ziren, Oinarrizko 11 gizarte zerbitzutan jada dezentralizatuta zegoena. Zerbitzu horiek diziplina anitzeko taldeekin hornituz joan ziren progresiboki, gizartearen eta hezkuntzaren arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko programen kudeaketarako kontratazioak eginez. Aldi berean, lankidetzaz hitzarmenak sinatu ziren hirugarren sektoreko erakundeekin, adingabeentzako eguneko zentrozen bi programa (ZIRKILU eta INURRI) eta ijito-familietako adingabeei arreta emateko gizarte-eta hezkuntza-programa zehatz bat (PISEKALO) garatzeko.

2010. urtean Gizarte Ekintza Sailak arriskuan dauden haur eta nerabeekin esku hartzeko udal prozesua onetsi zuen, Eusko Jaurlaritzak emandako Dekretu baten bidez (azaroaren 8ko 230/2011 Dekretua) onetsi zen BALORA tresna erreferentzia modura hartuta.

Urte hartan bi udal Sailek aldibereko esku-hartzeak gauzatu zituzten. Hezkuntza Sailak arreta espezifikoa eskaini zion ikastetxeetako eskola-absentismoari eta Oinarrizko

gizarte zerbitzuek esku-hartze osoago eta pertsonalatuagoa gauzatu zuten, eskola-absentismoak eta eskolagabetzeak arrisku edo babesgabetasun egoera erakusten baitzuten. Udal Sail bakoitzak esku hartu behar zuten profesionalen funtzioak eta jarduketak zehaztuta bazituen ere, ez zuten esku-hartzeak teknikoki koordinatzeko beharrezkoak ziren irizpideen gaineko behin betiko akordiorik lortu. Koordinazio hori gauzatzeko topaguneak identifikatzeko eta aitortzeko zailtasunak ere bazeuden.

Eskola-absentismoa eta eskolagabetzea arriskuaren edo babesgabetasunaren adierazle modura hartzeak, BALORA tresnan eta “Hezkuntza Eskubidea Bermatzeko Programa: eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erauzteko Bizkaiko lurraldean” programan bildu den moduan, agerian utzi zuen Udalak oso-osorik eramatea zaila zela eta bi udal Sailek gauzatutako esku-hartzeak koordinatzeko beharrezko zegoela. Gainera, bi Sailek lurralde mailako programan parte hartzen zuten 2003. urteaz geroztik.

Azkenean 2013. urtean Gizarte Ekintza Sailek bere gain hartu zuen gure udalerriko eskola-absentismoaren arloan egin beharreko guztia. 2015eko martxoan Bilbon eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programaren kudeaketa esleitu zitzaion AGINTZARI SOC. COOP. DE INICIATIVA SOCIALi, lizitazio publiko bidez.

Trantsizio horretan (2013-2015) programa hori progresiboki integratzeko proiektu bat egin da, Gizarte Ekintza Sailek bideratutako arriskuan dauden haur eta nerabeekin esku hartzeko prozesuaren baitan, udal esku-hartze guztiak antolatze eta helburu eta irizpide komunitaria bideratzeko. Aldez aurretik gure udalerriko eskola-absentismoaren inguruan eta ikastetxeetako bitartekari taldeek garatutako esku-hartzeen inguruan egindako diagnostiko batetik dator proiektu hori.

Prozesu horrek udal programa berriro diseinatzea ekarri du alde batetik eta bestetik, profesionalak (bitartekariak) jada oinarrietan badauden diziplina anitzeko taldeetan sartzeko, laneko eta koordinazioarako espazioei, funtzioei, jarduketei, lan-tresnei eta prestakuntzari dagokienez.

Erronka konplexua izan da, profil profesionalak dituzten eta lanean aritu diren pertsonak 200 baino gehiago direla eta parte-hartzea eta adostasuna prozesuan beharrezkoak direla kontuan hartuta. Aurreikusitako helburuen artean, ikastetxeetako bitartekaritzan izandako esperientzia sartzeko zegoen, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea aberasteko eta osatzeko. Udalerriko hezkuntza zentroak udal gizarte zerbitzuen jarduketetan “birkokatzea” ere beharrezkoa zen.

Proiektuaren emaitza modura, aldiro ebaluatu eta berrikusiko diren udal jarraibide batzuk onetsi ziren duela gutxi.

PROGRAMAREN EZAUGARRIAK ETA HELBURUAK

Eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programa gure udalerriko eskola-absentismoaren aurrean esku hartzeko baliabidea eta eredu da, eta baita eskolaratzeko eskubidea eta betebeharra betetzeko konpromisoa ere. Familiak eta adingabeak eskolaratzearen garrantziaren inguruan kontzientziaztean datza. Kontuan hartu beharra dago, gainera, gure antolamendu juridikoan derrigorrezkoa den adinean eskolara ez joatea eta eskola-absentismoa gurasoen edo legezko tutoreen arduragabekeriaren adierazle modura tipifikatuta daudela eta horrek arrisku edo babesgabetasun egoeran utz dezake adingabea.

Eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei lotutako baliabidea da. Programaren baitako langileen eta zerbitzu horretako langileen arteko koordinazioa oso estua da; izan ere, azken finean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak arduratzen dira udalerrian bizi diren adingabeak arriskuan daudenean esku hartzeaz,.

Bilbon bizi diren eta hezkuntza-prestakuntza zentroren batean ikasten dabilzan edo aritu beharko lirakekeen ikasleei zuzenduta dago programa, Haur Hezkuntzakoak (ez da derrigorra) eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoak (derrigorrak), 3-16 urte bitartean dituztenak eta 16-18 urte beherakoak direnak ere, lan munduan hasteko eta helduen bizitzari ekiteko laguntzen duen programa den heinean.

Honetarako diseinatuta dago eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programa:

- Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa prebenitzeko.
- Egoera horietan banaka zein taldeka esku hartzeko, Bilbon bizi diren adingabeak kaltetzen dituenean.
- Udal Zerbitzu Sozialei arazo horiei aurre egiten laguntzeko, prebenituz, sentsibilizatuz eta estrategia orokor edo bereziak diseinatuz. Estrategia bereziak oso ahulak diren eta egoera horiek asko kaltetu dituzten kolektibo batzuei zuzenduta egoten dira, edo ikastetxe konkretuei.

Arrisku egoeran dauden agingabeekin esku hartzeko prestakuntza jaso duten eta egiaztatutako esperientzia duten profesionalen talde batek osatzen du eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programa eta guztiek igaro dituzte 11 lanegun ikastetxeetako bitartekari lanetan. Profesional horietako batek taldea bera eta Gizarte Ekintzako udal Sailak ezarritako unitateak koordinatu beharko ditu.

Bi irizpideren arabera esleitzen dira profesionalak:

Zonifikazioaren irizpidea, profesionalak udal esku-hartzerako gailu modura integratzeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen baitan. Oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzak eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programaren erreferentziazko profesional bat edo gehiago dauzka eta lehentasun modura izango dute esleitu zaien eremuan bizi diren adingabeekin zuzenean esku hartzea. Horrez gain, udal gizaret zerbitzuetan egon beharko dira fisikoki.

Zentro bakoitzeko profesionalaren erreferentziaren irizpidea, ikastetxeen eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioa errazteko, beharrezkoa baita. Base bakoitzera esleitutako profesionalak erreferentziazkoak izango dira ikastetxeetan, horietako bakoitzean hilerro hautematen diren absentismo kasuei buruzko informazioa biltzerako orduan. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren eta profesionalaren eremuko ikastetxeen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren esparruan zehazten diren jarduketetarako ere hala izango dira.

UDALAK ESKOLAGABETZE ETA ABSENTISMO KASUETAN ESKU HARTZEKO BALIATUTAKO IRIZPIDE OROKORRAK

Udalak eskolagabetze eta eskola-absentismo kasuetan esku hartzeko, arriskuan dauden haur eta nerabeekin esku hartzeko udal prozesuan ezarritako irizpidean hartzen ditu kontuan, eta baita Bizkaiko Lurralde Historikoan indarrean dagoen Hezkuntza Eskubidea Bermatzeko Erakundearen arteko Programan ageri direnak ere. Kasu bakoitzaz arduratzen den gizarte langileak ireki eta itxi beharko ditu espedienteak.

Irizpide orokor modura, Udalak zuzenean eta modu pertsonalizatuan esku hartzen du Bilbon bizi diren ikasleen kasuan, % 20ko edo gehiagoko absentismo-tasa erakusten dutenean zehazki. % 20tik beherakoa bada, beste babesgabetasun mota bat egotziko litzaioke kasu horri.

Era berean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileek kontrakoa ez badiote, eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko zerbitzuko profesional taldea arduratuko da zuzenean esku hartzeaz, bai ikastetxean eta bai familian, absentismo-tasa % 20-50 bitartekoa den kasuetan. Absentismo-tasa % 50etik gorakoa denean, Gizarte Zerbitzuak arduratzen dira adingabeekin eta beren familiekin egin beharreko esku-hartzea koordinatzeaz.

Esku hartzeko beste irizpide orokor bat litzateke koordinaziorako bi espazio ezarri izana:

- Eremu bakoitzeko ikastetxeetako bitartekariak (eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programako langileak) eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako koordinatzaileak bilera egingo dute hiru hilean behin, aldian-aldian egoera erkatzeko eta eskola-absentismoaren ehunekoen eta adin tarteen bilakaera kontrolatzeko.
- Aldian behinko bilerak egingo dituzte eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programako taldearen koordinatzaileak eta Gizarte Ekintzako udal Saileko, Oinarrizko Gizarte Ekintzako eta Adingabeak Babesteko Negoziatuko unitateetakoak diren eta programaz arduratzen diren teknikariak, programaren jarraipena egiteko, zailtasunak identifikatzeko, hobetzeko proposamenak egiteko eta udalerriko arazo horietan esku hartzeko eta horiek prebenitzeko beste estrategia batzuk baloratzeko, hezkuntza sistemarekin koordinazioan.

7 ONDORIOAK-SINTESIA

- Ikastetxera sarri ez joateak neurri handi batean ikaslearen garapen pertsonal, sozial eta akademikoa eragozten du, eta horrela epe luzean gizarte bazterkeriako egoerak sortzen dira. Gainera, hamar urteotan jasotako datuek, jardunbide onen azterketak eta azterlan konparatuek agerian jarri dute eskola absentismoa beste arazo batzuen "detektagailu" on gisa dabilela: tratu txarra, berdinaren arteko erasoak, osasun arazoak, besteak beste.
- Eskola-absentismoa eskola uztea ekartzen duen fenomeno interaktibo eta heterogeneoa da. Egoera hori faktore ezberdinek eragin dezakete: abiapuntu ezberdinak, eskola-ibilbide ezberdinak, kideen taldearen eragina, etorkizunari buruzko pertzepzioak, familien maila soziala, eskolaren inguruan norberak eta familiak dituen igurikimenak... Arrisku-egoeran dauden pertsonak ez dituzte beti portaera absentistak izaten, eta absentismoaren zio guztiak ere ezin dira gizarteari edo familiari loturiko baldintzatzaileen bidez azaldu.
- Derrigorrezko eskolatzea luzatzeak ikasleetako batzuek eskolatze hori nola bizi duten baldintzatzen du, eta Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitartean absentismo-egoerak gertatzea azaltzen du.
- Absentismoari lotuta dauden eta ikastetxean bertan dauden zenbait faktore kontuan hartzeko modukoak dira. Bi ardatz garrantzitsu lirateke –eta ez dira bakarrak– curriculum eta irakaskuntza alde batetik, eta ikastetxeko giroa eta ikasteko giroa bestetik. Ikastetxeetako irakasleen zeregina eta ardura funtsezkoak dira, batez ere ikasle bakoitzak ikastetxeko eta taldeko kide dela senti dezan. Hala ere, absentismoa prebenitzeko dinamikak eta jarduteko moduak garatzeko, irakasleak babesten dituen eta horien esku-hartzea errazten duten politikak behar dira.
- Ikerketatik eta esperientziatik ateratako datuek erakusten duten legez, adin goiztiarrean esku hartu beharra dago. Ikaslea ikastetxetik aldendu denean, jada zaila da jarrera absentista zuzentzea.
- Eskolagabetzearen definizio operatiboa aldatu egin da ("ikastetxe baten matrikulatuta ez egotea") eta beraz, kasu konkretu batzuei bakarrik egotzen zaie arazo hori, normalean "etxeko irakaskuntza" izeneko kasuei lotutakoak, familiak hala egitea erabakita.
- Absentismoaren eta sarearen, mailaren eta sexuaren arteko harremanaren inguruko estatistika-azterlana egin ondoren, hiru efektuak esanguratsuak direla ondorioztatu da. Harreman horri dagokionez, honakoa ondorioztatu da estatistikoki: 1) absentismoan eragin handiena sarearena da; 2) sexuaren, mailaren eta absentismoaren arteko lotura dago baina mailen arabera ez da berdina; eta 3) sexuak eragina du absentismoan eta mutilak dira absentismorako joera duten gehienak.

Bilboko Udalak aurkeztutako esperientziari dagokionez, honako ondorioak bildu dira:

- Arriskuan dauden haur eta nerabeekin batera esku hartzea, ikuspegi integral eta koordinatu batetik.
- Bilboko Udalan udal programa berriro diseinatu izanak erronka konplexua baina gogobetekoa ekarri du. Izan ere, prozesuaren oinarria inplikaturako eragile guztien parte-hartzea eta adostasuna dira.
- Honetarako diseinatuta dago eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programa:
 - Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa prebenitzeko.
 - Egoera horietan banaka zein taldeka esku hartzeko, Bilbon bizi diren adingabeak kaltetzen dituenean.
 - Udal Zerbitzu Sozialei arazo horiei aurre egiten laguntzeko, prebenituz, sentsibilizatuz eta estrategia orokor edo bereziak diseinatz. Estrategia bereziak oso ahulak diren eta egoera horiek asko kaltetu dituzten kolektibo batzuei zuzenduta egoten dira, edo ikastetxe konkretuei.
- Irizpide orokor modura, Udalak zuzenean eta modu pertsonalizatuan esku hartzen du % 20ko edo gehiagoko absentismo-tasa erakusten duten kasuetan. % 20tik beherakoa bada, beste babesgabetasun mota bat egotziko litzaioke kasu horri.
- Eskola-absentismoa prebenitzeko, hautemateko eta kontrolatzeko programako profesional taldea arduratzen da zuzenean esku hartzeaz, bai ikastetxeetan eta bai familietan, absentismo-tasa % 50etik gorakoa denean izan ezik. Kasu horietan Gizarte Zerbitzuak arduratzen dira esku-hartzea koordinatzeaz.

Arazo honek Bizkaian 2014-2015 ikasturtean izan duen dimentsioari buruz honako ondorio hauek eskaintzen dira:

- Portaera absentista eta eskolagabetua duten ikasleen guztizko kopurua 1.682 izan da (Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen % 1,6). Kopuru horrek gorakada ekarri du (86 kasu) aurreko ikasturtearekin alderatuta. Dena den, ikasturtean zehar pilatutako absentismoa kontuan hartzen ez badugu, anekdotikoa edo berezia izateagatik % 10etik beherakoa denean, kopurua 666 (% 0,6) litzateke, hots, pasa den ikastaroan baino 53 kasu gutxiago.
- Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasleen % 2,8k eta DBHko ikasleen % 2,7k portaera absentista izan du.
- Ikastetxe pribatu itunduetan portaera hori izan duten ikasleen portzentajea % 0,4 izan da Lehen Hezkuntzan eta % 0,9 DBHn.
- Ikasturtean Lehen Hezkuntzan metatutako portaera absentista aztertuz gero, portzentajerik handiena % 25erainoko tartean kokatzen da. Hau da, ikasturtean Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoetako ikasleen % 90,2k galdutako eskola-egunek eta ikastetxe pribatu itunduetan ikasleen % 85,5ek galdutakoek ez dute gaintzen bakoitzaren urteko eskola-aldiaren kopuru osoaren % 25. Gainera, ikastetxe publikoetako ikasle horien % 68 % 10etik beherako tartean sartzen da, hots,

absentismo anekdotikoaren tartean. Ikastetxe pribatu itunduetan ikasleen % 50 baino gehiagorekin gertatzen da hori.

- DBHn, absentismoko portzentajerik handiena ere, % 77,3 ikastetxe publikoetan eta % 74,2 ikastetxe pribatu itunduetan, % 25erainoko tartean biltzen den arren, apalagoa da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Etapa horretan, ikastetxe publikoetako eta ikastetxe pribatu itunduetako ikasleen % 50 baino gehiago % 10etik beherako tartean sartzen da.
- "Absentismo zuzendu"ari dagokionez, hau da, apirila, maiatza eta ekainean gutxienez erregistrorik ez egoteari dagokionez, Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten % 56,7an gertatu da eta DBHko % 49,5ean; Ikastetxe pribatu itunduetan, aldiz, % 55,6an Lehen Hezkuntzan eta % 47,3an DBHn. Azken datuok arazoaren dimentsio zehatzago baten aurrean jartzen gaituzte. Hala, absentismorik larrienak ikasturte osoan irauten duenak Lehen Hezkuntzako 437 ikasleri eragiten die (% 0,7) eta DBHko 345eri (% 0,9). Guztira Oinarrizko Irakaskuntzako 782 ikasleri (% 0,76).
- Eskolaratu gabeko ikasleei dagokienez, 3 kasu hauteman dira eta Hezkuntza Ikuskaritzak horien berri eman dio Fiskaltzari.
- Haur Hezkuntzan, ikastetxe publikoetako ikasleen % 3,7k izan dute portaera absentista, eta % 0,2ak ikastetxe pribatu itunduetan.
- Portaera absentista eta eskolagabetzea handiagoak dira ikastetxe publikoetan (Lehen Hezkuntzan % 2,8 eta DBHn % 2,7) ikastetxe pribatu itunduetan baino; horietan Lehen Hezkuntzan % 0,4 dute eta DBHn % 0,9. Alde horrek erlazio estua dauka ekonomian, familian, gizartean edo kulturaren baztertuta egonik ikastetxe batzuetan edo besteetan eskolatzen den biztanleriaren portzentajearekin. Orokorrean gehiago dira sare publikoan, eta nolana ere desberdina bakoitza kokatuta dagoen zonaldearen arabera. Izan ere, ikasle absentistak ez dira banatzen era proportzionalen Lurralde osoan. Aitzitik, bi eremuk (Ikuskaritzako 3. eta 4. eremuek) biltzen dituzte ikasle horien % 91,5, eta oso adierazgarria da 3. eremuari dagokion portzentaje handia (% 55,7).
- Absentismo eta/edo eskolagabetze arazoak dituzten ikastetxeak ikastetxe publikoen % 60,4 eta ikastetxe pribatu itunduen % 46,5 izan dira. Baldin eta ikasle absentisten kopurua 6 edo gehiago delako irizpidea badarabilgu, ikastetxe kaltetuen portzentajea ikastetxe publikoen % 28,1 eta ikastetxe pribatu itunduen % 16,9 da. Datuok absentismoaren eta eskolagabetzearen mapa zehatza marrazten dute generik gune:
 - Bizkaian kaltetutako guneak, batik bat, lehenago esan den bezala, Ikuskaritzako 3. eta 4. eremuak dira. Zehatzago esanda, Bilboko auzo jakin batzuei (Otxarkoaga, Zazpi Kaleak, San Frantzisko, Zabala...) eta Basauri, Barakaldo, Portugalete, Santurtzi eta Sestao udalerritako zenbait auzori dagozkie.
- Badago irizpide are zorrotzago bat, ikastetxea kaltetutzat jotzea baldin eta ikasleen % 20 edo gehiagok portaera absentista eta/edo eskolagabetua badu. Horrela ulertuz gero bederatzi ikastetxe publiko leudeke goera horretan.

- Detektatu diren eta era positiboan bideratu ez diren kasuen % 49,9 ikastetxeetatik Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetara edo beste udal zerbitzu batzuetara bideratu dira. % 1,5 Foru Aldundiko Haurtzaroaren Zerbitzu Espezializatuetara bideratu dira eta % 2,5 Fiskaltzara (Adingabeen Fiskaltza).
- Azkenik, zera azaldu behar da aurten ere: arazo honek eskola-populazioaren zati txiki bati eragiten dion arren, gauza batzuk ez ditugu ahaztu behar.
 - 1.- 6tik 16 urtera bitarteko ikasleei eragiten diela (zenbaki absolutuetan, 1.682ri) edo kasu honetan 666ri, aurreko ikasturtean % 10etik beherako absentismoa izan duten ikasleak kontatzen ez baditugu. Haur eta nerabe horien derrigorrezko eskolaratzea da gizarteak hezkuntzarako eskubidea bermatzeko ezarri duen mekanismoa eta mekanismo hori ez da benetan gauzatzen ari.
 - 2.- Prebentzioz eta era sintomatikoan ez jokatzek, familien gainean esku hartu behar duten Botere Publikoen erantzukizuna bete ez izana adierazteaz gainera, etorkizunean gizarte bazterketa eragiten duten arrazoi egiaztatuetako bat ez ezabatzea dakar.

8 HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Batzordeak kontuan hartu ditu jardunaldian jaso diren zuzendaritza taldeen eta udal zerbitzuetako teknikarien iritzia, gure ingurune hurbilean eta beste errealitate batzuetan aplikatzen diren irtenbideak nahiz prozesuari buruz berak egin duen balorazioa. Horrenbestez, beharrezkotzat jo da hobetzeko honako proposamen hauek aurkeztea, haietariko asko iragan ikasturteetako txostenetan daudela; izan ere, arazo honen adierazpenik larrienen murrizketan bilakaera positiboa egiaztatu arren, absentismoaren erregistro kopuruak gora egiten jarraitzen du.

- Ikastetxeei eskatzen zaie, lehenago bezalaxe, euren ahaleginari eustea, eta ahal izanez gero areagotzea ere, bertaratze kontrol zorrotza burutze aldera. Kontrol hori ez da jo behar jokabide iraingarri gisa, lehen urrats gisa baizik, balizko arrisku akademiko, pertsonal edo sozialeko egoera batean jokatzeko ikasle kaltetuentzat. Gainera, gogora ekarri behar da ikastetxeak erabaki behar dituela irizpideak hutsegiteak justifikatzeko edo ez justifikatzeko, eta horiek tutore guztiek aplikatu behar dituztela modu berean.
- Halaber, parte hartzen duten eragile guztiei (irakaskuntza taldeak, gizarte-taldeak eta zerbitzu espezializatuak) eskatzen zaie kasua detektatu eta/edo bideratu ostean berehalako eta koordinatutako esku-hartzea egin dezatela.
- Arazoaren dimentsioa kontuan hartuta (oso txikia kuantitatiboki Hezkuntza Sistemari dagokionez oro har, baina larria bete gabeko oinarrizko eskubidearen garrantziagatik), esku-hartze bereizi bati ekin beharko litzaioke. Esku-hartze horretan, alde batetik bereziki kaltetutako eskualde eta ikastetxeak sartuko lirateke, eta bestetik, kasu bakoitzaren azterketa. Nolanahi ere, lehentasuna eman behar zaie adinik txikienak dituztenei, eta arreta berezia jarri behar da Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehenengo zikloan.
- Eskola-absentismoan eta eskolagabetzean esku hartzeko protokolo berriarekin batera abiarazitako neurri berriak mantenduko dira eta beraz, honakoa egin beharko da, beste gauza batzuen artean:
 - Berehala jardungo da (lehen hiruhilekoan) Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan detektatzen diren kasuetan, are gehiago Haur Hezkuntzako 5 urteko mailan portaera absentistatik izan bada.
 - Prestasunez esku hartuko da Lehen Hezkuntzako etapatik Derrigorrezko Bigarrenera iragatean, eta esku-hartzea eta jarraipena bermatuta egongo dira harik eta haur eta nerabeen eskola egoera normaldu arte.

Parte hartzen duten profesional guztiek azaroaren 8ko 230/2011 Dekretuaren bidez onetsitako BALORA tresnaren eskakizunak aplikatu beharko dituzte.

- Aurten ere, Batzordeak berriro oso modu positiboan baloratu ditu eragile eta Erakunde batzuek eta besteek egindako ahaleginak, komunikazioa eta esku-hartze koordinatua hobetzeko programaren aplikazioko hamargarren ikasturte honetan.

Ikastetxe guztiei absentismo eta eskolagabetzeko hiruhilekoko sintesia aurkeztea eskatu izanari esker hobetu egin da kontrola datuak jasotzeko orduan. Alabaina, oraindik ere azpimarratu behar da epeak errespetatu behar direla programaren barruan dauden esku-hartzeetan.

- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren eta Adingabeen Fiskaltzaren arteko topaketak egiten jarraitu beharko litzateke. Aurtengo topaketetan txosten honetako datuen berri emango da eta Fiskaltzara edo dagokion instantzia judizialera bideratutako kasu bakoitzaren banakako bilakaera batera aztertzen jarraituko da.
- Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean ageri diren EAEko Administrazio publikoen jardura-printzipioei erantzunez eta beren eskumenak erabilia eta, zehatzago, lege horren 5., 7. eta 41. artikuluetan azaltzen denari dagokionez, Hezkuntza Sailaren eta, absentismoko erarik larrienak zein auzotan gertatzen diren, auzo horiei dagozkien Udalen artean lankidetzako hitzarmenak sinatzea proposatzen da. Hitzarmen horiek, arazo hori gehien jasaten duten eskualde eta ikastetxeetako gizarte- eta hezkuntza-dimentsioa batera lantzeko berariazko giza baliabideak izendatzeko oinarria izango liriteke.
- Batzorde honek onartu behar du Hezkuntza Sailak abian jarritako neurriak, bereziki "Esku-hartze globalerako proiektuak" eta DBHko neurri bereizgarriak, izan daitezkeela hezkuntza-etapa horretako absentismo-erregistroak murriztu izanaren azalpena. Arrazoi hori dela eta, Ikastetxeetako Zuzendaritzak Hamaika Esku Programaren tankerako ekimenak indartzen jarraitu behar du eta edozein kasutan ere, aipatutako Programaren barruan sartzen ez badira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren deialdietan lehentasuna eman beharko litzazieke % 20tik gorako indizea duten ikastetxeei (bederatzi ikastetxe publiko dira).
- Aurreko proposamena sendotu nahian eta Sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 79.3. artikuluan ezarrita dagoena aplikatze aldera, plan bereziak prestatzea proposatzen da auzo-, udalerr-, eskualde- edo bestelako geografia-eremuetarako, baldin eta, bereziki degradatuta daudelako eta pobrezia- eta bazterkeria-tasa handiak dituztelako, epe laburrean edo ertainean ekintza integrala behar badute. Proposamen hori, txosten honetan azaltzen diren auzo eta udalerrietako batzuetarako zehazten da.
- Scriven-ek zera esaten zuen: "Hobetu ahal izateko ebaluatu beharra dago". Hezkuntza-zein gizarte-esparruan, abian jarriko diren politika eta estrategiak ebaluatu egin beharko dira errealitate eta eraginkortasunari egokitu izana egiaztatze aldera. Hortaz, erakundeek eskola-absentismoa ezabatze aldera abian jarritako politika, estrategia eta esku-hartzeak ebaluatzea proposatzen da. Horren haritik, biziki gomendatzen da truke, azterlan eta laguntzako talde bat eratzea. Talde horretan parte hartuko dute tutore, orientatzaile edo zuzendariak, dagokion eskualdeko ikuskatzaileak, Berritzeguneak horretarako izendatuko dituen arduradunak, ikastetxeotan esku hartzen duten udal zerbitzuetako langileak, Jarraipen Batzorde horretako ordezkari batek, UPV/EHUKo ordezkari aditu batek eta ISEI/IVEIko pertsona batek, arazoak identifikatzeko eta konponbideak bilatzeko.

9 ESKERRAK

Hobetu beharreko elementu asko aurkitzen diren arren horiek txosten honetan jaso dira eta eskola absentismoko arazoa guztiz konpondu ez den arren, Jarraipen Batzorde honek, Programa aplikatzeko hamaika ikasturteotan, profesionalek eta Erakundeek programa gauzatzeko ahalegin handia egin dutela ikusi ahal izan du. Bereziki azpimarratzen da lan handia egin dela absentismoa eta eskolagabetzea detektatzen, jasotako informazioa tratatzen eta arazoa aztertzeke ekimenak abian jartzen, ekimen horien ardatza "haur eta nerabeen interes gorena" dela. Era berean, zerikusia duten Erakunde eta profesionalen koordinazioan egindako urrats garrantzitsuak azpimarratzen dira.

Hemendik bihoa gure esker ona.

Bilbon, 2015eko abenduaren 10ean

JARRAIPEN BATZORDEA

Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa:

- Manu Goitia

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila:

- Ángel Acebo
- Ana Alonso
- Inmaculada Cereceda

Bizkiko Foru Aldundia:

- Alazne Madinabeitia
- Nuria Pajares

EUDEL:

- Ainara Bergaretxe
- Dorleta Goiburu
- Manuela González
- Javier Ruiz



10 ERANSKINAK

10.1 I. ERANSKINA

DATUEN BILAKAERA AZKEN URTEETAN

IKASTURTEAK	ABSENT. + ESKOLAG. OIN. HEZKUNTZ AN	ABSENTISMO A HAUR HEZK	IKAST. KALTETUAK > 6 kasu		FISKALTZARA BIDERATUAK
			PUBLIKOAK	PRIBATU ITUND.	
2003-2004	1.074 (% 1,2)	201 (% 0,76)	38 (% 15,1)	6 (% 4,4)	8 (% 0,63)
2004-2005	1.133 (% 1,3)	197 (% 0,72)	39 (% 15,5)	5 (% 3,6)	28 (% 2,5)
2005-2006	1.135 (% 1,3)	257 (% 0,91)	41 (% 16,3)	5 (% 3,6)	29 (% 2,5)
2006-2007	1.106 (% 1,2)	239 (% 0,82)	44 (% 17,5)	9 (% 6,6)	30 (% 2,6)
2007-2008	1.405 (% 1,5)	300 (% 0,99)	50 (% 19,8)	14 (% 10,2)	41 (% 2,9)
2008-2009	1.319 (% 1,4)	330 (% 1,06)	54 (% 21,1)	14 (% 9,9)	52 (% 3,9)
2009-2010	1.475 (% 1,5)	328 (% 1,04)	52 (% 20,3)	10 (% 7,1)	59 (% 4)
2010-2011	1.484 (% 1,5)	445 (% 1,4)	50 (% 19,5)	11 (% 7,8)	65 (% 4,4)
2011-2012	1.602 (% 1,6)	501 (% 1,6)	52 (% 20)	11 (% 7,7)	141 (% 9)
2012-2013	1.703 (% 1,7)	610 (% 1,9)	64 (% 24,6)	15 (% 10,6)	167 (% 9,8)
2013-2014	1.596 (% 1,5)	583 (% 1,8)	67 (% 25,8)	18 (% 12,7)	87 (% 5,4)
2014-2015	1.685 (% 1,6)	614 (% 1,9)	73 (% 28,1)	24 (% 16,9)	43 (% 2,5)

Aurreko taulak argi eskaintzen digu datuen bilakaera jarraipen horretan jardun izan duten hamabi ikasturteetan. Ikasturte honetan absentismoak gora egin du Oinarrizko Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan. Dena den, absentismo anekdotiko edo berezia kenduta, absentismorik larrienak behera egin du nabarmen eta 666 kasu bakarrik egon dira Oinarrizko Hezkuntzan.

ABSENTISMO ZUZENDUA

Absentismo zuzenduari dagokionez, esan behar da hurrengo taula horrek bilakaera osoa jasotzen duela 2004-2005 ikasturteaz geroztik; izan ere, datu hori ez zen jaso 2003-2004 ikasturtean.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK	
	LEHEN HEZKUNTZA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua	LEHEN HEZKUNTZA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua
2004-2005	% 42	% 49	% 57	% 44
2005-2006	% 42,4	% 44	% 52,5	% 34,6
2006-2007	% 63,4	% 55,1	% 67,5	% 59,4
2007-2008	% 47,1	% 48	% 48,4	% 39
2008-2009	% 44,1	% 43,8	% 65,1	% 46
2009-2010	% 46,6	% 41,8	% 43	% 45,2
2010-2011	% 49,5	% 53,4	% 70,2	% 49,6
2011-2012	% 53,6	% 50,2	% 59,8	% 52,9
2012-2013	% 58,7	% 47,4	% 59,3	% 51,3
2013-2014	% 52,7	% 42,4	% 63,7	% 43,7
2014-2015	% 56,7	% 49,55	% 55,6	% 47,3%

Taula horretan ikus daitekeenez, ikasturte honetan ikastetxe publikoetako bi etapetan eta ikastetxe pribatu itunduetako DBHn zuzendu diren kasuen ehuneko aurrekoan baino handiagoa da.

AZKEN TARTEAN METATUTAKO ABSENTISMOA

Jarraian azken tartean metatutako absentismoaren bilakaera jasotzen da (Ikastetxera ikasturteko eskola-egunen % 75ean baino gehiagoan joaten ez diren ikasleen portzentajea jasotzen du, eskolagabetuekin batera), informazio hau jaso den hamar ikasturteetan.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK	
	LEHEN HEZKUNTZA % 75 eta % 100 bitarteko absentismoa	DBH % 75 eta % 100 bitarteko absentismoa	LEHEN HEZKUNTZA % 75 eta % 100 bitarteko absentismoa	DBH % 75 eta % 100 bitarteko absentismoa
2004-2005	% 6,5	% 17,1	% 6,8	% 24,6
2005-2006	% 6,6	% 19	% 15,6	% 15,5
2006-2007	% 4,9	% 10,5	% 1,3	% 5,9
2007-2008	% 2,9	% 9,5	% 3,2	% 14,2
2008-2009	% 7,4	% 12,6	% 4,5	% 11,7
2009-2010	% 2,7	% 10,3	% 3,1	% 12,8
2010-2011	% 2,6	% 9,1	% 2,3	% 15,9
2011-2012	% 1,6	% 4,6	% 1	% 5,7
2012-2013	% 1,4	% 2,8	% 2,6	% 5,3
2013-2014	% 2,4	% 6,5	% 0,9	% 9,2
2014-2015	% 1,6	% 3,1	% 1,6	% 3,8

Aurreko taulak jakinarazten du arazoaren dimentsiorik larriena (ia ikasturte osoan irauten duenean) nabarmen murriztu dela ikasturte honetan aurreko ikasturtearekin alderatuta, ikastetxe pribatu itunduetako Lehen Hezkuntzan izan ezik. Beherakada horrek inplikaturako hezkuntzaren alorreko eragileek egindako lan handiaren ondorioa izan behar du.

10.2 II. ERANSKINA

BIBLIOGRAFIA

CASPE, M., LÓPEZ, M. y WOLOS, C. (2007). *Family involvement makes a difference. 2, winter 2006/2007*. Cambridge: Harvard Family Research Project, Harvard Graduate School of Education.

DEARING, E., KREIDER, H., SIMKINS, S., Y WEISS, H.B. (2006). Family involvement in school and low-income children's literacy performance: Longitudinal associations between and within families. *Journal of Educational Psychology*, 98, 653-664.

DELORS, J. (1996). *La educación encierra un tesoro*. Madrid. Santillana, Ediciones Unesco.

DRIESSEN, G., SMITH, F. y SLEEGERS, P. (2005). Parental Involvement and Educational Achievement. *British Educational Research Journal*, 31(4) 509-532.

FERREIROS, C. E. (2011). *Defensa del derecho a la enseñanza obligatoria: el papel del ministerio fiscal*. Madrid. Fundación AEQUITAS.

FLECHA, A. y otros. (2009). Participación en escuelas de éxito: una investigación comunicativa del proyecto Includ-ed. *Cultura y Educación*, 21(2), 183-196.

GARCÍA, M. (2009). "Absentismo y Abandono Escolar. Algunas claves para el desarrollo de intervenciones integradas en el marco de una escuela inclusiva y del territorio". En Bolívar, A (coord): Absentismo y Abandono escolar. Políticas y buenas prácticas. Monográfico Escuela.

GONZÁLEZ, M.T. (2006). Absentismo y abandono escolar: una situación singular de la exclusión educativa. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 4 (1), 5-27.

GONZÁLEZ, M.T. (2014). Absentismo escolar: posibles respuestas desde el centro educativo. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 12 (2), 5-27.

HEDIBEL, M.E. (2005). Prevención y tratamiento del absentismo y de la desescolarización en Francia: experiencias y nuevas formas de actuar. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, Vol 3, nº1.

HESS, R.S., MOLINA, A.M y KOZLESKI, E.B. (2006). Until Somebody Hears Me: Parent Voice an Advocacy in Special Educational Decision Making. *British Journal of Special Education* 33(3) 148-157.

LONGÁS MAYAYO, J. (2015). Conferencia en la jornada de absentismo de Bizkaia: “Acompañamiento educativo en entornos de complejidad. Trabajo en red y colaboración interinstitucional para la mejora del éxito escolar”.
<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2014-20151>

MARTÍNEZ, J. L. (2009). *El absentismo en la escolaridad obligatoria. Etiología del problema y caracterización socio-educativa del alumno absentista*. Tesis doctoral. Universidad de Castilla-La Mancha.

MERRY, M. (2005). Social exclusion of muslim youth in flemish and french speaking Belgian schools. *Comparative Education Review*, 49(1), 1.

RÚE, D. AMELA, M. y BUSCARONS, M. (2003). *El absentismo escolar como reto para la calidad educativa*. CIDE. Segundo Premio de Investigación Educativa. Barcelona.

SÁNCHEZ GUERRERO, M.E. (2014). Conferencia en la jornada de absentismo de Bizkaia. “Intervención desde la comunidad”.
<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/129>

SANTOS GUERRA, M. A. (2012). *La escuela que aprende*. Madrid. Ediciones Morata.

UNIÓN EUROPEA, (2010). Comunicación de la Comisión. Europa 2020 “Una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador”. Bruselas.

VÁZQUEZ GONZÁLEZ, C. (2013). Consecuencias jurídico-penales del absentismo escolar. *Revista Avances en Supervisión Educativa*, nº18, mayo 2013.